



BARREN

TOKIKOM

**Badoa,
arrastoa lagata**

IBARRA R.

IBERDROLA
PRIMERA DIVISION
FEMENINA

RPS 271/12



ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745



aldaz
hortz klinikak

RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea



Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 626
www.fisio-mas.com

RPS 132/08



federópticos
ikus

RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

leku eder
hortz klinika

RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

Mari Jose Ruiz Porres
Doktorea



GINEKOLOGOA

R.P.S. 82/15
Madina Radiologia
Toribio Etxeberria 4, 1 - Eibar
Tel.: 943 202 857
mj.ruizporres@gmail.com

RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola

GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA



Toribio Etxeberria, 22
Eibar
Tel.: 943 106 020
Mug.: 677 531 830

RPS 303/16

50 *50 urte zuekin bidaiatzen*

2017-2018 EZKONTZAK!
Zugan pentsatu dugu,
itzulerako bidean pentsa ez dezazun!

Pol. Ind. Igartualdea, 27
20850 Mendara - Tel. 943 741 677
www.dariobus.com - clientes@dariobus.com





IRAZABAL
clínica dental



Familiaren Osasuna
Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako
Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

Ainhoa Zulueta
Doktorea
Ardurabiz eremuko ospitalaren
8:00-14:00 eta 22:00-08:00
Ezpeti arren
10:00-14:00

Facebooken: Clínica Dental Irazabal | Eta twitterren: @Clinicairazabal



FINANTZAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantzazio sail tobeak. GALDETU

IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189

B. Sarasketa, 1 ac 943 12 82 31

Kafea, opilak, ogia,
pintxoak, ardoak...

Gozatu **EIBARKO**
PREZIORIK ONENAK!

KAFETEGIA OKINDEGIA

SUTLONDO

LABADEROKUA Egunero 06.00etatik aurrera

Jon Aranao
Guillermo Torres




Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenerdik ostirakera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

*Inoiz ere ez zaitzuek desakatu.
Dutur ordua hartzeko.*



GARAZI AYESTA



“Iritsi da, antza, uda beroa, eta horri eskua emanda, baita gimnasioetako promozioak, burutik oinetarainoko zonalde guztiak depilatzeke eskaintzak eta ‘bikini operazioa’”

tsatsi zaizkigu galtzak izterretara aurten ere, Nora. Eta terrazetan eguzki goxotan egon ordez, itzal bila ere hasi gara. Ailegatu da, antza, uda beroa. Eta noski, urtaro honi eskua emanda, baita gimnasioetako promozioak, burutik oinetarainoko zonalde guztiak depilatzeke eskaintzak eta, nola ez, urteroko mamua: *bikini operazioa*. Izenak berak beldurra sortzen du, ezta? Gorputz ustelak edo gaixoak bagenitu eta hondartza zapaltzeko ebakuntza gogor bat beharko bagenu bezala. Uda behar bezala gozatzeko urte guztian egin ez duguna egin eta “forman” jarri beharko bagina bezala, nahi eta nahi ez. Zenbat eta azkarrago, hobe. Zenbat eta gehiago, hobe. Zenbat eta morenoago, hobe. Jesus, ez da hainbesterako izango! Gogoratzen ditut umetako hondartza egunak, neska zein mutil bainujantziaren

beheko partea jantzi eta zoroaren pare jolasean ibiltzen ginenekoak itsas-bazterrean. Eta digestio madarikatua... segunduak orduak bailiran pasatzen ziren une haietan. Eta kitto, ezer gehiagorik ez. Ez bularralde handia disimulatzeko bikini berezirik, ez *push-up* estiloko bainujantzi deserosorik, ez zelulitisa ezkutatzeke saiakerarik eta ez tanga ikustezinik. Ezta olatuek aidean eramango dutenaren beldurrez lepoa markatzeraino estutu behar den sokarik ere. Fribolitate honi kontrapuntua jartzearen, facebook-en aurkitutako argazki bat ekarriko dut mahai-gainera. *Hondartzara joateko ezinbestekoak diren bi faktoreak* zioen hasieran: *Gorputz bat edukitzea eta hondartzara joatea*. Zer sinplea eta zein erreala. Ba horixe, Nora. Lehena behintzat, badaukazu zuk ere. Joango gara Debara, edo bikiniak etxean utzita, Saturraran aldera?



NORA HADI



“Urtero egiten diot zin nire buruari, Garazi; ezetz, hurrengo urtean ezetz, ez naizela olagarro honen sarean eroriko eta ez diodala merezi ez duen garrantziarik emango”

Ai, Garazi... benetan gai ezaguna gaurkoan mahai gaineratu nahi izan duzuna. Udar *Trending Topic* izaten den horietakoa. Ba ote da inguruan inor izurri hau baino indartsuagoa denik eta izurriaren sarean jausi ez denik? Egon badaude, noski, baina nik behintzat sumatu dut nire burua gai honen inguruan arduratzen hasia.

Urtero egiten diot zin nire buruari, Garazi; ezetz, hurrengo urtean ezetz, ez naizela olagarro honen sarean eroriko eta ez diodala merezi ez duen garrantziarik emango. Eta nire buruak atzera baietz, iritsiko direla hondartza egunak eta horrekin batera hasiko naizela barrita energetikoak eguneroko zerealez ordezkatzeko, Maltzagatik bueltan natorren bakoitzean pisura igotzen eta haren erantzunarekin desesperatzen, haserretzen, itotzen...

Orain akordatzen naiz amak azterketa garaietan behin eta

berriz errepikatutakoaz: "Harrapatu zaitu zezena oraingoan ere". Zenbat zezen ditugun gure atzetik: urteroko azken azterketen atzetik, gradu amaierako lanaren atzetik, dieta madarikatuaren atzetik...

Jarri naiz pentsatzen, Garazi, zein exigente bihurtu den (dugun) gizartea bizitzako arlo guztietan, eta zeinen itsu bizi garen bertan murgilduta. Hortaz, horra nire proposamena: alda ditugun gure ohiturak eta bihur dezagun bikini operazio *hori* barre-operazio edo maitasun-operazio. Aprobetxa ditugun eguzki izpiak lagunartean kaña bat ez, bi... hartzeko, eta momentu goxoez aberasteko.

Mila aldiz aberatsagoa barrutik politikak izatea, eta hori badaukazu zuk ere, Garazi. Eta tira, behin ohiturak hausten hasita... Nora? Debara! Eta bikiniak etxean utzita!

EDURNE EIZAGIRRE

Psikologoa



Boterea eta harremanak

Gehiegi izateak, neurri baten, gainditzea adierazten du. Ni eta zure arteko muga non dagoen sumatzea, bereiztea eta jakitea da pertsonok dugun erronka garrantzitsua bizikidetzari begira.

Muga horrek, beste guztiek bezala,

bi alde ditu landu beharrekoak bere funtzioa bete dezan. Alde batetik, inguruan beste pertsona batzuk daudenaren kontzientzia izan behar dut, eta haien beharrak eta nahiak kontuan hartzen ikasi, nire mugimenduek eurenak oztopa ez ditzaten. Bestalde, neure burua garatzeko espazioa behar dut, eta nortasuna eta konfiantzarekin bete espazio hori.

Norberak "habitatzen" duen espazioaren kontzientziak besteekiko muga ezartzen laguntzen du, baina besteen behar eta nahiak behatu, aztertu, errespetatu eta asetzen saiatzeko hezten gai-

tuztenean zaila da norbere azalaren kontzientzia izatea, eta ohitu gaitzke inbadiituak izatera.

Ikasketa honetan zailtasunak sortzen dituen boterearen zapora biziak sortzen digun adikzioa da. Egin nahi ez duzun zerbait egitea lortzen dudanean sentitzen duan botere sukarra, superbotere bat izango banu bezala. Gure artean sortzen diren loturak elkarrengan eragiteko boterea ematen digu; izan ikastolan, kalean, lanean edo etxean.

Bakoitzak erabakitzen du nola erabili botere hori; baina argi izan behar dugu pertsonen arteko erlazio orotan faktore eragile garrantzitsua dela boterea.

"Besteen behar eta nahiak behatu, aztertu, errespetatu eta asetzen saiatzeko hezten gaituztenean zaila da norbere azalaren kontzientzia izatea"



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriki lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuittzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegi, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Geru Koop. E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ELGOIBARKO ALKATEARI

Joan zen azaroaren 18an artikulu bat argitaratu nuen aldizkari honetan bertan *Auzoetako bilerak* izenburupean. Artikulu hartan, oso interesgarria irizten nion Eibarko Udalak antolatu ohi dituen auzoetako bilerak Elgoibarren ere egiteari, batzar horietan herritarrek aukera dutelako udal agintariei zuzenean euren ezinegoren eta kezken berri emateko eta ekarpenak egiteko.

Sei hilabete joan dira orduetik eta nire proposamenak ez du erantzun positiborik jaso. Esan beharra dizut ez nuela besterik espero, zuk zuzendutako eta udal gobernuak babestutako 2016-2019 legegintzaldiko Planean, abenduan herritarrei aurkeztu zenieten hartan, ez delako gai hau helburuen zerrendan agertzen. Eta hori aipatutako plan horretan herritar guztien parte-hartzea bermatzea zenuela bisiotzat, eta gardentasuna eta parte-hartzea baloretzat, besteak beste. Guzti horrek pentsarazten dit proposatzen duzuen inplikazio kafeinagabea dela.

Ez dakit zergatik ez duzuen onartzen parte-hartze eredu hori; den beharrezko ez duzelako ikusten edo den nolabaiteko beldurra diozelako herritarren aurrean jartzeari eta haietako batzuk zenbait udal ordezkari dituzten gabeziez konturatzeari. Azken horregatik balitz, ulertzen dut zuen jarrera, kontziente zaretelako egiten duzuen eginda edo gobernatzen duzuen moduan gobernatuta ere, zuen alderdiak jarraituko duela gure herri honen etorkizuna zuzentzen, "demokrazia" aroan beti egin duen bezala.

Garbi utzi nahi dut ez nagoela inongo alderdi politikora afiliatuta. Esaten dutenagatik barik egiten dutenagatik baloratzen ditut nik pertsonak, eta horren harira esan nahi dut, biltzeko aukera eman didaten agintari politikoen artetik, bi estimatzen ditudala bereziki, alderdi politiko ezberdinetakoak biak. Horietako bat Larraitz Ugarte Zubizarreta da, Gipuzkoako Foru

Aldundiko Mugikortasun eta Bide Azpiegitura diputatu ohia. Adeitasunez eta apaltasunez hartu ninduen eta entzun zuen nire eskaera, Donostia eta gure herria lotzeko garraio publiko zerbitzua hobetzeko, eta 2015. urteko martxoaren 1etik indarrean dagoena. Bestea Marco Boronat Elizalde da, Eusko Jaurlaritzako Garraio zuzendari ohia. Estimatzen dizkiot agertu zidan zintzotasuna eta eskaintako tratu fina. Nik egindako planteamenduak arretaz entzun zituen eta bidezkoa iruditzen zitzaidan horren alde borrokan segitzera animatu ninduen.

MIRIAM LIZARRALDE

"Herri euskaldun batean bizi nahi dudalako eta helburu hori lortzeko elkarte beharrezkoa delako"

Juan Angel Garcia Calleja

► LARUNBATEAN ZUBIETARA!

Erraustegiko obrak bigarren aldiz hasi dira; 2011ko udaberrian hasi zituzten oraingo agintariak eta gero EHBildukoek gelditu. Orduan, 2011n, milaka gipuzkoarrek esaten genuen eta gaur berriz diogu: "Errausketarik Ez", txarra delako osasunarentzako, ingurumenarentzako, ekonomiarentzako eta enpleguarentzako. Tamalez, Gipuzkoako agintariak ez dute entzun nahi, ez orduan eta ez orain. 2011n milioi askoko zorra egin zioten Gipuzkoari Swap madarikatu haiekin eta orain, berriz, 2017tik aurrera 35 urterako hipotekatu gaituzte 1.000 milioitik gorako alferrikako gastuetan.

Zein eskubide daukagu gaizki egiteko ondo egin daitekeena? Zein eskubide daukagu gure zabarkeriagatik auzoak kutsatu eta hondatzeko? Kutsatzeko eskubiderik ez dauka inork, ez ibaia, ez ondokoa tabakoarekin, ez Afrikako herritarra gure pozoiak bialduz eta ez Donostiarrek Zubietako jendeei kalte eginez.

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak *Erraustegiaren Aurkako Eguna* antolatu du larunbaterako (maiatzak 27), Zubietan. Han egiten hasi diren erraustegiaren proiektua salatzen. Mugimenduak gipuzkoar guztioi bertara gerturatzeko gonbidapena egin digu. Hitzaldi interesgarriak egongo dira: *Nafarroan errausketarik gabeko Hondakin Plana, Errausketa eta Nekazaritza, Alianza Incineradora de Valdemingomez No...* Haurrentzako tailerrak eta herri bazkaria egongo dira.

Animatu gaitezen! Erraustegirik ez, ez gure izenean!

A.I.Z.



Zergatik merezi du Elgoibarko Izarrako bazkide izateak?

Ke detektoreak jarriko ditu Elgoibarko Udalak 80 urtez gorakoen etxeetan, doan



Suteak saihesteko zerbitzua jarri du martxan Elgoibarko Udalak, eta horren barruan ke detektoreak ezarriko ditu 80 urtez gorako 271 lagunen etxeetan, doan, adinekoren euren zein auzokoen segurtasuna bermatzeko. Bihartik aurrera, gutun bana jasoko dute adinekoek etxean, eta hortik aurrera, behar bezala identifikatutako teknikari bat joango zaie etxera. Teknikari horrek etxebizitzaren krokis bat egingo du, larrialdi kasuren bat gertatuz gero, etxea nondik eta nola hustu behar den zehazteko. Ke detekttagailua bera non jarri ere zehaztuko du. Etxebizitza normaletan bakararekin nahikoa litzateke, baina bi pisutakoetan edota baserrietan baliteke bi behar izatea. Atempo etxeko teknikariek jarriko dituzte ke detekttagailuak, sabaietan, obrarik egin beharrik gabe. Kea edo sua detektatuz gero, alarma joko du gailu horrek, ondo entzuteko moduan -85 dezibeliotara-. Gailuaren mantenuaz Udala arduratuko da, eta urtean behin pasatuko dira teknikariak etxeetatik, ondo dauden egiaztatzen.

Boluntarioak behar dituzte gaur eta bihar Elgoibarren egingo duten elikagai bilketa kanpainarako

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak gaur eta bihar Elgoibarren egingo duen elikagai bilketan parte hartzera deitu du Elgoibarko Gizarteratze Mahaiak. BM supermerkatuan arituko dira boluntarioak jatekoa batzen, 9:30etik 21:30era, baina txandak osatzeko, arduradunei ezinbestekoa zaie zenbat boluntario izango dituzten jakitea. Horregatik, prest dauden herritarrei lehenbailehen izena emateko eskatu diete.

Gurutze Gorrian eman behar da izena eta hiru bide jarri dituzte horretarako: 943 743 864 telefono zenbakira deituta, elgoibar.social@cruzroja.es helbidera idatzita edo Gurutze Gorriak duen bulegora agertuta. Txaleko bereizgarriak jantzita ibiliko dira gaur eta bihar egiteko horretan boluntarioak, saltokira sartzen direnei poltsa bat eskaini eta betetako poltsak jasotzen.

Bioaniztasunari buruzko kezkak eraman dituzte ikasleek Udalera

Elgoibarko Herri Eskolako eta Elgoibar Ikastolako 45 ikasleek udalbatza berezian aurkeztu zituzten joan zen astean herriko bioaniztasuna lantzen ibili ostean atera dituzten ondorio nagusiak, eta baita euren eskaera eta proposamenak ere. Ane Beitia Elgoibarko alkateak eta Josu Arraiz Hirigintza zinegotziak erantzun zituzten eskola-umeen galderak. Eskola Agenda 21 Debegesa garapen agentziak koordinatzen du eta Eusko Jaurlaritzak laguntzen du diruz. Programa horretan Meka, Arreiturre Institutuak eta IMH ikasleek ere parte hartu dute. Argazkiak: www.barrren.eus. Mendaron, maiatzaren 30ean egingo da pleno txikia, 11:00etan.



Hezkuntzako hirugarren greba deialdiak jarraipen zabala izan du Mendaroko ikastetxeetan, eta jarraipen apalagoa Elgoibarkoetan



Mendaro Ikastolako atarian astelehenean egin zuten elkarretartzeko argazkia.

Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko eskola publikoetan grebara deitu zuten martitzenerako ELA, LAB eta Steilas sindikatuek. Hirugarren greba deialdia izan da, eta aurrekoetan bezala, irakasleak, heziketa bereziko profesionalak, sukaldariak, garbitzaileak eta Haurreskola partzuergokoak zeuden greba egitera deituta. Hezkuntza publikoaren egoera "oso larria" dela salatu dute sindikatuek, eta inbertsioa Europako Batasuneko batez bestekora igotzeko eta azken urteetako murrizketak eteteko eskatu diote Jaurlaritzari, besteak beste. Akordiorik ez dago, baina, momentuz. Irakasleen arloari dagokionez, hil hasieran egin zuten mahai sektorialaren bilera sindikatuek eta Hezkuntza Saiak, baina urrunduta daude bi aldeak. Jaurlaritzak dio Euskal Autonomia Erkidegoan "lan baldintza onenak" di-

tuzten kolektiboa direla. Mendaron jarraipen zabala izan zuten grebak martitzenean eta gutxieneko zerbitzuak ematera mugatu ziren ikastolan eta Haurreskolan. Elgoibarko Haurreskolan ere jarraipena erabatekoa izan zen, aurreko bi deialdietan bezala. Herri Eskolan, berriz, langileen %54k egin zuten bat grebarekin (martxoaren 22koan langileen %80k egin zuten bat). Arreiturre Institutuan, berriz, irakasleen %41ek egin zuten greba (aurre-

koan %78k egin zuten). Hogei bat irakasle agertu ziren zentrora, eta ohiko jarduna bermatzerik izan ez zuten, ikasleek ez zuten eskolarik izan. Meka Lanbide Eskolan, bestalde, 15 irakasle egin zuten bat grebarekin: 34k egin zuten joan zen asteko deialdian eta 11k egin zuten bat martxoko greba deialdian. IMHn, berriz, 45 bat irakasle daude, eta bakarrak egin zuten greba martitzenean, aurreko deialdian bezala.

Egin zaitez bazkide!
Elgoibarko Izarra
943 741 626
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus



Sagardo Eguna antolatu du Trinitateetako Danborradaren Atabal elkarteak gaur iluntzerako

Atabal Trinitateetako Danborradaren elkarteak sagardo eguna antolatu du gaur iluntzerako, danborrada finantzatzeko dirua lortzeko. 18:45ean inauguratuko dute jaiak udal agintariak, Maalako parkean, eta ordutik hasita, sagardoa eta pintxoak dastatzeko aukera izango da, 22:00ak aldera arte. Eusko Label markako sagarrarekin egindako sagardoa eta Eusko Label haragia parrillan eskainiko dituzte. Zazpi sagardotegitako sagardoa dastatzeko aukera egongo da: Iparragirre, Oiharte, Bereziartua, Petritegi, Caloniari, Aburuza eta Astabre. Era berean, bost pintxo jarriko dituzte aukeran: sahieskia, oilaskoa, txorizoa, hanburgesa eta hirugiharra. Tiketak zazpi euroan salduko dituzte, eta horren barruan edalontzia emango dute Danborradako grabatuarekin, eta zazpi sagardo eta pintxo bat dastatzeko aukera. Pintxoak, bakarka, 2 euroan salduko dituzte. Eta zapiak ere jarriko dituzte salgai Trinitate jaietan, herritarrek zapiak janztera bultzatzeko.



▶ ELI IBARRA

ATHLETICEKO JOKALARIA

Athleticen historiaren parte garrantzitsu izan diren hiru jokalarik esango dute agur denboraldi amaieran, eta horietako bat da Eli Ibarra (Elgoibar, 1981). Hamabost denboralditan, emakumezkoen taldearen sorreratik, 413 aldiz jantzi du jokalaria elgoibartarrak elastiko zuri-gorria –beste inork baino gehiagotan– 111 gol sartu ditu, eta bost liga txapelketa irabazi dituen bakarra da. Historia egin du Eli Ibarrak Athleticen, baina iritsi da agur esateko ordua. Negar malkotan eman zuten agur prentsurrekoak joan zen astean, eta “une tristea” zela nabarmendu zuten. Hala ere, “harro” azaldu zen Athleticekin “dena” bizi izanaz.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Iritsi da agur esateko eguna. Zer sentitzen duzu?

Oraindik sinistu ezinda nago; uste dut ez dudala erabat asimilatu. Oraindik Erreginaren Kopa jokatu behar dugu, eta entrenamenduetara joaten naiz lezamara, beraz, momentuz eguneroko dinamikarekin jarraitzen dut. Nik uste dut azken agur bazkaria egiten dugunean konturatuko naizela benetan bukatu dela.

◆ Ipuinak beste amaiera bat izatea gus-tatuko litzazukeela aipatu zenuen prentsurrekoan; azkeneko hau urte gogorra izan dela, lesioen eraginez.

Bai. Nire futbol ibilbidean, oro har, lesioek errespetatu naute, baina azken urteotan tokatu zaizkit. Adinean ere aurrera noa, eta gero eta gehiago kostatzen da sendatzea. Orain arte, jokatu zitekeen guztia jokatu dut, baina aurtengo denboraldian ez dut nahi beste jokatu, eta futbolaren alde hori ezagutzea gogorra da. Baina denborak aurrera egingo du, eta futbolak eman dizkidan gauza onekin geratuko naiz.

◆ 413 aldiz jantzi duzu Athleticen kamiseta. Inork baino gehiagotan. Ez da gutxi, ezta?



“Eguneroko bizitzarako ezinbestekoak diren baloreak eman dizkit futbolak”

Inoiz ez dut pentsatu zenbaki horretan, baina bai, pentsatzen jarrita, partida asko dira.

◆ 15 denboraldi Athleticen, bost liga txapelketa irabazi eta 111 gol sartu. Zenbaki horiei erreparatuta esan daiteke Athleticen historia egin duzula?

Bai, niretzako ohore bat izan da Athleticen jokatzeko. Oso pozik nago. Athleticekin partida gehien jokatu dituen jokalaria naiz, eta bost liga txapelketa irabazi dituen bakarra.

◆ Espainiako selekzioarekin ere gorenera iritsi zinen, Kanadan jokatu zen

Munduko Txapelketara. Nolako esperientzia izan zen?

Oso ona. Europako txapelketa eta munduko txapelketa ezagutu ditut Espainiako selekzioarekin, eta futbol jokalaria batentzako sari garrantzitsua da hori.

♦ **Josu Urrutia presidenteak esan zuen prentsaurrekoan “eredu” izan zaretela bai futbol zelaian eta baita zelaitik kanpo ere. Zer sentitzen duzu gazteek autografoak eskatu eta miresten zaituztela ikustean?**

Bizipen oso polita da. Eskoletara joaten gara hitzaldiak eskaintzera eta gure esperientzia kontatzera, eta gaztetxoek ilusio aurpegiak ikustea oso polita da. Kallean autografoak edo beraien argazkiak ateratzeko eskatzen dizkigu jendeak, edo ezagutzen zaituztenean “Aupa Athletic, Aupa Eli” entzutea benetan polita da. Pozik hartzen dut, azken batean jendeak erakusten du zure ondoan dagoela. Futbolaren alderik politenetarikoa da.

♦ **2002an Athleticetik emakumezkoen taldea sortu zuenetik zaude taldean. Hasi eta amaitu bertan egin duzu. Imaginatu duzu inoiz zure burua beste talderen batean?**

Ez, sekula ez dut pentsatu beste talderen batera joatea. Nire bihotzeko taldea Athletic izan da beti. Umea nintzela beti pentsatzen nuen mutilek zorte handia zutela, Athleticen jokatzea posible zutelako. Emakumezkoen taldea sortu behar zutela eta nirekin kontatzen zutela esan zidatenean, nire ametsa bete nuen.

♦ **Eibartarrak taldean zeundela jaso zenuen Athleticen deia. Nola gogoratzen duzu?**

Leioa taldeak Igoera Fasea jokatzen zuen, eta partida hori telebistaz ikusi nuen, ETBn. Hurrengo egunean Iñigo Juaristi Leioako entrenatzaileak deitu zidan esateko Athleticetik emakumezkoen taldea sotuko zuela eta nirekin kontatzen zuela. Athleticetik Leioa taldea hartu zuen. Beraz, plantila bat bazegoen, baina beste lau jokalaririk fitxatu zituzten, eta horietako bat izan nintzen ni. Sekulakoa izan zen niretzat.

♦ **Eta etxekoek nola hartu zuten?**

“Futboleant jokatzen hasteko lehen aukera Eibartarrak taldeak eman zidan. Haiei ere asko zor diet”

Oso ondo hartu zuten, eta animatu egin ninduten gainera. Nire futbol ibilbide guztian etxekoak alboan izan ditut beti. Partida guztiak ikustera etortzen dira, eta momentu gogorretan ere beti hor egon dira.

♦ **Aldaketa handia igarriko zenuen Eibartarrak taldetik Athleticera iritsi zinenean, ala?**

Bai, izugarria. Eibartarrak taldean jokatzen nuenean partidak ikustera jokalarien bikotekideak, etxekoak eta lagunak bakarrik joaten ziren, eta Athleticen partidetara askoz jende gehiago joaten da. Ez dauka zerikusirik. Athleticen entrenatzeko arropa eman ziguten, botak, zapattillak... eta lesioen bat edo edozein arazoren aurrean ere eskaintzen duten zerbitzua oso ona da. Beste mundu eza-

gutu nuen. Gaur egun gauzak asko hobetu dira taldeetan, baina 2002an alde handia igarri nuen, bai. Dena dela, futboleant jokatzen hasteko lehen aukera Eibartarrak taldeak eman zidan, eta hori ez dut sekula ahaztuko. Haiei ere asko zor diet.

♦ **Nola gogoratzen duzu Athleticekin jokatutako zenuen estreinako partida ofiziala?**

Torrejon taldearen kontra izan zen, Lezama 7-1 irabazi genuen, eta gainera gola sartu nuen. Debut ezin hobea izan zen.

♦ **17 zenbakiarekin jokatutako duzu, Joseba Etxeberriak bezala. Bi elgoibartar garrantzitsu izan zarete Athleticen. Kasualitate izan da bizkarrean zenbaki berbera eramatea?**

Ez. Athleticera iritsi nintzenerako futbol taldea ia osatuta zegoen, lehen esan bezala Athleticetik Leioa hartu zutelako beregan. Jokalari bakoitzak bazeukan bere zenbakia, eta niri aukeratzeko eman zizkidaten 16a eta 17a. Joseba Etxeberria elgoibartarrak 17arekin jokatzen zuenez, nik ere hura aukeratu nuen. Argi daukat ez dudala zenbaki hori inoiz aldatuko. Nire zenbakia beti izango da 17a.

♦ **Emakumezkoen taldeak Lezaman jo-**





kutzen du, baina San Mamesen jokatzeko aukera ere izan duzu. Zer sentitzen da Katedralean jokatzean?

Ezinezkoa da hitzekin deskribatzea. San Mamesen jokatu genuen estreinakoa aldia izugarria izan zen. Bi ordu aurretik joan ginen denok. Lehen taldearen aldagelan sartzea, futbol zelaia ikustea... Askok geneukan jokoa, eta urduri geunden. Puebla taldearen kontrako partida zen. Liga amaitzeko oraindik beste jardunaldi bat falta zen, baina partida hura oso garrantzitsua zen. Zale asko etorri ziren partida ikustera eta han bizitakoa izugarria izan zen. 18.000 ikusle etorri ziren gu ikustera.

♦ San Mames zaharreko azken gola ere zuk sartu zenuen. Historiarako beste datu bat.

Bai. Ligako azken jardunaldia zen, Bartzelonaren kontra. Biok geneukan liga txapelketa eskuratzeko aukera, eta partida oso garrantzitsua zen. Nik sartu nuen Athleticen gola, baina partida galdu egin genuen 1-2, eta liga beraien irabazi zuten. Hori izan zen San Mameseko azken gola.

♦ Athleticen zaleak munduko onenatarikoa izatearen fama dauka. Emakumezkoen taldetik ere nabaritu duzue hori?

Bai, bai. Partida batean 35.000 lagun bildu ziren San Mameseko harmailetan gu animatzeko. Nik uste dut emakumezkoen kirol batek ere ez duela horrelakorik lortu. Lezamara ere jende asko etortzen da gure partidak ikustera, goiko postuetan ibiltzen garen, bereziki. Afizio oso ona daukagu.

♦ Joan zen asteko prentsurrekoan kazetariari egin zenieten eskaera: Emakumezkoen futbolaz gehiago hitz egiteko. Zein egoera bizi du gaur egun emakumezkoen futbolak?

Gauzak asko aldatu eta hobetu dira. Lehen ez zuten emakumezkoen partidarik telebistaz ematen, eta gaur egun ETBk partida asko ematen ditu. Orain Iberdrola Liga sartu da emakumezkoen ligan ere, eta espero dut gauzak azkarrago eta hobeto joatea. Emakumezkoen futbol zelaia toki gehienetan baldintza txarretan daude, eta sekulako diferentzia dago zelai on batean edo txar batean jokatu.

♦ Zer eman eta kendu dizu futbolak?

Ez daukat ezer kendu didanaren sententziorik, eta eman, aldiz, asko eman dit. Klub batean egoteak gauza asko erakusten dizkizu: bizikidetzatza, diziplina, komunikabideekin hitz egiteko esperientzia, taldean lan egiten ikastea... Eguneroko bi-

zitarako ezinbestekoak diren baloreak eman dizkit futbolak.

♦ Zein izan da futboleko bizi izan duzun momenturik onena?

Athleticekin jokatu nuen lehen partida eta San Mamesen sartutako azken gola une bereziak dira. Joan zen astean eskainitako prentsurrekoa ere berezia eta hunkigarria izan zen, eta ez dut berehalakoan ahaztuko.

♦ Eta, hemendik aurrera, zer?

Hasieran beldurra sentitu nuen. Hainbeste ordu eskaintzen dizkiot futbolari, beldur nintzela hemendik aurrera orduak nola beteko nituen. Baina gainerako guztiek bezala, lana bilatu eta bizitzan aurrera egin beharko dut. Ez dut inoiz pentsatu entrenatzaile izatea, baina gustatuko litzaidake futbolarekin izan dudana lotura erabat ez etetea. Urte asko izan dira, eta ez nuke nahi futbolari atea erabat ixtea.

♦ Besterik?

Eskerrak ematea besterik ez zait gertatzen. Zuei, nirekin gogoratzeagatik, niretzako oso garrantzitsua delako. Baita ere etxekoei eta lagunei, une on eta gogorretan alboan izan ditudalako beti. Momentu onetan egotea erraza da, baina gogorretan behar izaten da inguruan jendea. Eta Athletic taldeari ere eskerrik asko, bihotz-bihotzez.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Trenbidea zikinkeriaz beteta dago: "Toletxegaineko apeaderoan hartu nuen trenba joan zen astean, eta harrirta geratu nintzen ikusi nuenarekin: trenbidea zaborrez beteta zegoen. Plastikozko botilak, latak, tabako paketeak... denetarik zegoen han. Trenbidea garbitzea ez dakit noren ardura den, baina zaborra hara ez botatzea denon ardura da. Errespetu apur bat eskatzen dut, eta bizikidetzarako beharrezkoak diren gutxieneko baloreak zaintzea. Zikintzen ez dena garbitu beharrik ez dago. Denok ere gusturago biziko gara herri garbi batean".

Bi erlauntza ostu dizkirate: "Mortieratik gora, Olazarraga baserri inguruan, bi erlauntza ostu zizkidaten orain dela hila-bete inguru. Erlauntzak itzultzeko eskatzen diot ostu dituenari, eta inguruko jendeari, aldiz, elkarlana eskatu nahi nioke, erlauntza horiek topatzen laguntzeko. Eskerrik asko".

Urazandi auzoan jarriko dituzten led argiak herriko erdigunekoak bezalakoak al dira?: "Egunkarian irakurri dut Udalak led argiak jarriko dituela Urazandi auzoan, eta jakin nahi nuke herriko erdigunekoak bezalakoak diren. Ni erdigunean bizi naiz, eta iruditzen zait led argi hauek oso argitasun gutxi ematen dutela. Kaleak oso ilun geratzen dira gauetan, eta jende gutxi ibiltzen den orduetan, beldurgarri egoten dira. Eskerrak eman nahi dizkiet herriko merkataritxikiei dendetako argiak berandura arte piztuta mantentzen dituztelako. Horrek bizitasun pixkat ematen dio herriguneari, bestela, gauetz kaleak hilda egoten dira". Josu Arraiz Hirigintza Zinegotziak esandakoaren arabera, Urazandiko argiteriaren proiektua oraindik erabakitzeke dago. Proposamen desberdinak aztertuko dituzte, eta Urazandiko auzokideei lasai egoteko esan die, auzoak argitasun nahikoa izango duelako. Herriguneari buruz, bestalde, esan du led motako argiek argitasun maila nahikoa ematen dutela.



Txalo bat Elgoibarko Izarrari, Peru Harrira antolatu zuen irteeragatik: "Elgoibarko Izarrak antolatuta, joan zen zapatuan Leitzan izan ginen, Iñaki Perurenak daukan harriaren museoa. Primeran pasatu genuen, bai umeek eta baita gurasook ere. Eskerrak eman nahi dizkiot Elgoibarko Izarrari, eta horrelako irteerak antolatzen segi dezala eskatu, benetan interesgarriak direlako. Zorte handia daukagu herrian horrelako euskara elkarte bat daukagulako".



Txalo handi bat Maite Maiora eta Iñigo Larizen lorpenengatik: "Handiak zarete biok. Zuek lortzen ari zaretena sekulakoa da. Espainiako Kilometro Bertikalen txapelketako bi txapeldunak gure herrikoak izatea handia da, benetan. Zorionak, bioi, eta segi horrela. Txapel guztiak ondo merezitakoak dituzue".



lazko maiatzean Kalegoen Plazan egin zuten elkarretaratzeko argazkia da.

Elgoibarko Sarek 'Salatzen dut' asteburua antolatu du, Sebas Etxaniz preso elgoibartarraren egoera salatzeko

Sebas Etxaniz preso elgoibartarraren egoera salatzeko *Salatzen dut* asteburua antolatu du Elgoibarko Sarek gaur eta biharko. Euskal preso, iheslari eta deportatu guztien giza eskubideen alde egiteko sortu zuten Sare, baina oraingoan Sebas Etxaniz preso elgoibartarrarengan jarri nahi dute arreta. 73 urte ditu Etxanizek, eta Villabonako kartzelan dago preso, Asturiasen, Elgoibartik 370 bat kilometrora. Legediaren zenbait ataletan jasotakoaren arabera, Etxanizek libre behar lukeela gogorarazi du Sarek, 70 urtez gorako presoei eskubidez dagokielako, eta salatu du preso jarraitzen badu, "mendekuz" dela. Horregatik haren egoera salatzeko eta Sareren aldarrikapena entzunarazteko, hainbat ekintza antolatu dituzte gaurko eta biharko, eta parte hartzera deitu dituzte elgoibartarrak.

Sebasek gaztetan alde egin zuen Elgoibartik. Nikaraguan urte batzuk egin ondoren, 1993an estraditatu zuten eta kartzelan hiru urte eman zituen. Aske gelditu zenean, Venezuelan bizi izan zen, eta handik ere estraditatu egin zuten 2002an. Geroztik 15 urte daramatza preso. Hainbat kartzela ezagutu ditu, Valdemoro, Soto, Carabanchel eta Villenakoa, eta azkeneko zazpi urteetan Villabonako kartzelan dute. Eskubideak urratuak dituela salatu du Sarek beste behin eta pausoak emateko eskatu die agintariei. "ETAk borroka armatua laga ondoren pentsa zitekeen pauso batzuk emango zirela desmilitarizazioaren, biktimen, iheslarien eta presoen gaian, baina ez da ezer egin eta onartezina da", salatu du Pello Mendizabalek, eta bat etorri dira Maite Izagirre eta Juan Bautista Izagirre Sareko taldekideak ere. "Mendeku politika" amaitzeko eskatu dute, eta presoen urruntzea ahalbidetzen duen sakabanaketa politika bertan behera lagatzeko eta bizi osorako zigorra ahalbidetzen duten lege eta egoerak indargabetzeko. Era berean, gaixotasun larriak dituzten

presoak eta 70 urtez gorakoak edo zigorraren 3/4ak eta 2/3ak beteta dituzten presoak kaleratzeko ere eskatu dute. Aldarrikapen hori eramango dute kalera berriz ere, eta hauxe duzue *Salatzen dut* astebururako osatu duten egitaraua.

EGITARAUA

Gaur, barixakua:

18:30-20:00 Pilota partidak Kalegoen plazan.

20:00 Elkarretaratzea, Kalegoen plazan

Bihar, zapatua:

18:30 Itziarren semeak Mungiako ska taldearen kontzertua, Maalan.

Ondoren, A2an taldearen emanaldia. Gabi Agirrego mezkorta eta Alfonso Guillo elgoibartarrek osatzen dute A2an taldea.

Ondoren, Durangoko Karrika antzerki taldearen *Izarrak marrazten* antzezlanaren antzezpena. Jose Martin Urrutia *Txotxe* elgoibartarrak idatzi du testua, eta antzezlan honetan hiru presoren azalean sartuko dira hiru antzezleak: Miren Erdoiza, Eneko Sagardoy eta Jose Martin Urrutia bera. Estepan Lauaxeta, Julia Conesa eta Joseba Sarrionandia dira antzezlaneko hiru presoak eta egoera gordina bizi dute, haietako bi hurrengo egunean fusilatu behar dituztelako eta hirugarrena ziegan sartu berri dutelako. Gau horretan, euren ziegetako lehioetatik harreman berezia sortuko da haien artean. Epikatik urrundu eta giza emozioetan sakonduko dute antzezlanean, preso horien bizipenetan oinarrituta.

Hellgoibarko Metal Gaua antolatu du Sinüosek ekainaren 2rako

Hilabete batzuetako isilunearen ostean, bosgarren urtez Hellgoibarko Metal Gaua antolatu du Sinüosek ekainaren 2rako. Bi talde gonbidatu dituzte, Quaoar eta Adrift, eta kontzertua Maalako parkean izango da, ohi legez. 23:00etan hasiko dira emanaldiak.

Quaoar.....

Bilbokoak dira, eta etiketa asko jarri izan dizkiete, baina euren garbi dute: rock estiloa da euren, mugarik gabeko rock-a. Bost lagunek osatzen dute taldea: Josu Palacios eta Hugo Landaluze (gitarrak), Björn Mendizabal (bateria), Iñigo L. Agudo (ahotsa eta gitarra akustikoa) eta Aitor Zorriketa (baxua). 2007an argitaratu zuten euren lehen lana: *Man't*. Estimazio handia eta kritika onak izan zituen lehen lan hark eta 2009an berriro ateratu behar izan zuten. 2011ko martxoan ateratu zuten bigarren lana: *The River & The Soul*. Disko esanguratsuen zerrendan puntaren puntan egon zen urte horretan eta taldeari berari ere beste izen bat eman zion. Hain izan zuten arrakasta handia lan hark,



2013an berriro ateratu zuela Madrilgo Noma Records disketxeak, eta Bilboko Pop/Rock nazioarteko lehiaketa entzutetsua eta Barakaldoko eta Leioako Pop/Rock jaialdiak irabazi zituztela. Zuzenekoetan ere igarri zen ospea. Atzerrira ere irten ziren, eta Black Crowes, Smashing Pumpkins eta The Sword moduko taldeen aurretik ere jo

izan zuten, besteak beste Gasteizko Azkena Rock Jaialdian, eta baita Cynic, Letz Zep, Klimt 1918 eta Hamletekin ere. Behetik gora etorri den taldea da, Bilborock aretoan jo duten bost aldietan aretoa bete egin duten taldea. 2015ean argitaratu zuten euren hirugarren lana: *Dreamers. Dreaming*.

Adrift.....

Madrilatik dator Adrift taldea. Sludge edo doom erritmoak jorratzen dituzte, rock progresiboari eta esperimentalari bizkarrik eman gabe. Lau lagunek osatzen dute taldea: Jaime (bateria), Macon (gitarra), Jorge (ahotsa eta gitarra) eta Dani (baxua) eta Adrift abizena hartzen dute guztiek, taldearen aurkezpenetan. Estilo ezberdinetako talde ezberdinetan ibilitakoak dira guztiak, bakarka nahiz binaka: El Paramon, Codo, Aathma... Talde ezberdinen eragina izan dute hortaz, eta honako hauek aipatzen dituzte euren, besteak beste: Neurosis, Isis, Kyuss, The Melvins, Black Sabbath, Sonic Youth eta King Crimson.

Adrift izen handia lortu duen taldea da, eta horren erakusle da European bi



berra ere eginak dituztela dagoeneko. Resurrection Fest, Costa de Fuego, Sant Felu eta Bracara Extreme Fest jaialdi entzutetsuetan parte hartu dute, eta izen handiko beste talde batzuekin partekatu izan dute oholtza, besteak beste Entombed, Wolves in the Throne Room edota Yob taldeekin. Bost lan ka-

leratu dituzte, baina kritikoek diote zuzenekoetan asko irabazten duen taldea dela. Black heart bleeds black da euren azken lana. 2012an kaleratu zuten, Alone Records disketxearekin, eta horrek berak nazioartean bidea zabaldu diela uste dute taldekideek. www.facebook.com/adrift.

Euskaldunen kontzientzia eragin eta euskararen arnaguneak sendotzeko tailerra antolatu du Mendaroko Udalak UEMArekin batera

Udalerrri euskaldunak dira euskararen birrikak, eta horren jakitun euskararen arnaguneak sendotzeko bi eguneko tailerra antolatu du Mendaroko Udalak, UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearekin lankidetzan. Maiatzaren 30ean eta ekainaren 6an izango dira bi saioak, udaletxean, 19:00etan.

Euskara nagusi den espazioak dira arnaguneak, eguneroko bizitzan euskara naturaltasunez erabiltzen den guñeak. Espazio soziofuntzionalak (familia, ikastetxea, lantokia...) edo espazio geografikoak izan daitezke, eta adituek diote hizkuntzak bizirauteko ezinbesteko dituela espazio horiek, ezin delako espazio berean bi hizkuntzatan maila berean jardun. Alegia,



hizkuntza bat beti nagusitzen zaiola besteari, eta jakina, gure kasuan, euskara beti iriteten dela galtzaile. Eta kezkatuta daude adituak Mendar bezalako gune geografiko euskaldunetan ere euskaldunen kontzientziazioa apaldu egin delako. Tailer hauen bidez

herritarren kontzientziazioan eragin nahi dute bereziki, eta horretarako, euren eguneroko bizitzan euskaraz bizi ez diren eremuak edo egoerak identifikatuko dituzte taldean, gero identifikatu dituzten zailtasun horiei komunitate gisa erantzuteko.

Salgai daude Pirritx eta Porrotxek Mendaron eskainiko duten saiorako sarrerak

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Tipi-tapa*, korrika ikuskizuna eskainiko dute ekainaren 2an, ostiralean, Mendaron. Ikastolako jolastokian izango da saioa, 18:30etik aurrera, eta maiatzaren 19a geroztik salgai daude sarrerak. Udaletxean bertan, Morroskillon eta Roteta dendetan eskuratu ahal dira sarrerak, 7 eurotan. Kapotadun aukietan dauden haurrek ez dute sarrerarik ordaindu behar.



Amorantek kontzertua eskaini zuen domekan Mendaron



Ikusmin handia sortu zuen Mendaron Amoranteren kontzertuak, Iban Urizarren bakarkako proiektuak, eta San Agustín aretoak itxura polita hartu zuen, are gehiago domeka arratsaldea izateko. Musika tradizionala edo herrikoia esperimentazioarekin eta inprobisazioarekin nahasi zituen, horretarako gitarra, fiskornioa, harmonioa, zintzarria eta aurrez grabatutako ahots eta soinuen erreproduktzioak baliatuta. Ordu térdi inguruko kontzertua izan zen, oso berea, eta publikoak eskertu zuen.

Ahokotasuna eta bertso-gintza egitasmoaren barruan, ikasturte amaierako jaialdia eskaini dute Elgoibarko 251 ikaslek

Gipuzkoako Bertsozale Elkartek zuzendu eta Elgoibarko Udalak finantzaturako *Ahokotasuna eta bertso-gintza* proiektuan jardun duten ikasleek ikasturte amaierako jaialdia eskaini zuten eguaztenean Herriko Antzokian. Bi saio izan ziren, eta guztira 251 ikaslek parte hartu zuten.

Bertsoaren bidez euskarazko ahoko komunikazioa lantzeko sortu zuten proiektu hau eta aurten Herri Eskolako laugarren eta bosgarren mailako ikasleek eta Elgoibar Ikastolako bosgarren eta seigarren mailakoek jardun dute. Ikasleek astean ordubete eskaini diote ahokotasuna lantzeari, eta Iñaki Gurrutxaga eta Jokin Labayen bertsolariak eman dituzte eskolak. Argazkiak: barren.eus



Elgoibarko Izarrak zabaldu du uztaileko eta iraileko txoko osagarrietan izena emateko epea

Azken urteotan egin ohi duen legez, Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika aisialdi taldeak txokoen zerbitzua eskainiko die familiei, uztailean eta irailean, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea (ekainaren 9an itxiko da). Uztailean, 24tik 28ra egingo dira txoko osagarriak, eta irailean, 1etik 6ra. Bietako batean izena eman nahi duenak 48 euro ordaindu beharko ditu (Elgoibarko Izarrako bazkideek 43 euro), eta bietan izena eman nahi dutenek 90 euro ordaindu beharko dituzte (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 80). 9:00etatik 13:00ak arteko zerbitzua eskainiko da, baina aurrera egiteko, gutxienez 15 haur egon beharko dira izena emanda. Ordainketak ondorengo kontu korrante zenbaki honetan egin beharko dira, kontzeptuan haurraren izen-abizenak zehaztuta: ES35 3035 0007 23 0070065514.

Euskal kulturaren transmisioa landu zuten Peru Harrin, Leitzan, Elgoibarko Izarrak antolatutako irteeran



Peru Harrira, Leitzara, irteera antolatu zuen Elgoibarko Izarrak maiatzaren 20rako eta herri kirolen mundua eta baserri giroa hobeto ezagutzeko aukera izan zuten izena eman zuten lagunek, argazkiko talde honek. Iñaki Perurenak berak eman zizkien azalpenak han, eta giro ezin hobea sortu zen. Familia giroan igaro zuten eguna, jolasten eta aldi berean ikasten, euskal ohituren eta euskal kulturaren transmisioa lantzen.

Ekainaren 3an ospatuko du Elgoibar Ikastolak Ikastolaren Eguna

Ekainaren 3an ospatuko dute Elgoibarraren Ikastolaren eguna. Aurreko urteetan moduan, egun osoko egitaraua antolatu dute. Goizean goiz haur eta nagusiek kalejira egingo dute Kalegoen plazatik ikastolara, eta han, orotariko ekintzak egingo dituzte. Haur eta gurasoentzako jolasak izango dira, puzgarriak ere bai, erakusketa ere atonduko dute, eta tonbola eta beselako sorpresa ugari ere egongo dira, antolatzaileek aurreratu dutenez. Gero, hala nahi dutenek, elkarrekin bazkalduko dute, eta ondoren, dantzaldia izango dute.

C.D. Elgoibarrek Udalaren errekonozimendua jaso du



Ehun urte bete zituen C.D. Elgoibarrek martxoaren 3an, baina egun horretarako prestatu zituzten ospakizunak bertan behera utzi zituzten Iker Jausororen eta Joseba Zinkunegiren heriotza eta dolua zirela-eta. Joan den barixakuan egin zituzten mendeurren egunerako prestatutako ospakizunak. Hasteko, C.D. Elgoibarreko Futbol Eskolan diharduten neska-mutilak Kalegoen Plazan, Aita Agirren eta Lekueder parkean aritu ziren futboleant. Gero, Elgoibarko Udalaren errekonozimendua jaso zuen C.D. Elgoibarrek. Udal agintariek C.D. Elgoibarreko ordezkariak agurtu zituzten lehenik udaletxe atarian, eta futbol taldearen omenezko aureskua dantzatu zuten gero Haritz dantza taldeko dantzariak, Udal Txistulari Taldearen laguntzaz. C.D. Elgoibarreko gaur egungo zuzendaritza taldeko ordezkariak gainera, klubeko presidente izandako hainbat lagunek ere hartu zuten parte ekitaldi instituzionalean, eta baita C.D. Elgoibarren Mendeurreneko Batzordeko kideak eta Foru Aldundiko ordezkariak ere. Denak batera udaletxeko pleno aretora igo ziren.

Elgoibarko Mendi Itzulia ekainaren 1ean emango dute 'Gailurra martxan' saioan



Elgoibarko Mendi Itzulia ezagutzen izan ziren *Gailurra martxan* saioak Morkaiko-
ren Egunean, eta ekainaren 1ean, egunean, emitituko dute saioa ETB1en, 22:15ean. 38 kilometroko mendi martxan kirolari profesionalak izan zituzten bidelagun: Iñigo Lariz, Maite Maiora, Itziar Gurratxaga edota Edu Uribe, besteak beste. Baita herritarrek eta denetarikoko taldeak ere: Txitxibilaldi, Korrikedada egitasmoa, 60+ programa, Morkaiko Mendi Taldea, 2-dean Brotuz errefuxiatuei laguntzeko taldea, etab. Gotzon Arrietaren erronka pertsonalak ere tartea izango du saioan: minbizia gaingitu ondoren, 38 kilometroko proba osorik egiten saiatuko da Gotzon. Hari laguntzeko, familiak ezustekoa emango dio. Programak amaiera hunkigarria izango duela jakinarazi dute, Haritz Dantza taldeak eta Elgoibarko herri osoak emandako "berotasunaren" babesean.

Haundi vs Anaitasuna: jaitsiera eta igoera jokoan Mintxetan




Ligako azken partida jokatu du Haundik zapatuan Mintxetan (17:30), Azkoitiko Anaitasuna taldearen aurka. Mailari eusteko partida irabazi eta beste talde batzuen emaitzen baitan egon beharko dute elgoibartarrek. Aldiz, lidergoan dago Anaitasuna, puntu bateko errentarekin. Helburu ezberdinak, baina asko dute jokoan bi taldeek. C.D. Elgoibarrek ez du talde nagusiak maila galtzerik nahi klubak ehun urte bete dituen urtean. Hori dela-eta, ahalegin berezia egiten ari dira taldeak zaleen babesa senti dezan. Batetik, sarrera doan izango dute Mintxetara igotzen diren elgoibartarrek. Bestetik, harmailak girotzeko behe mailako jokalarientzako bazkaria antolatu dute. Kalegoen plazan bazkaldu ostean denak batera igoko dira Mintxetara.

Unai Loiola nagusi Elgetan



Gipuzkoako 48. hiru txirlo bola joko txapelketako zortzigarren tiraldia irabazi zuen Elgetan Unai Loiola elgoibartarrek, jarraian irabazten duen bigarrena -Bergarako irabazi zuen joan den astean-. Elgetan hirugarren egin zuen Xabier Loiola, berriz, sailkapen nagusiko bigarren postura igo da. Txapelketa bukatzeko bi jardunaldi falta dira: Azkoitiko (maiatzak 27), eta Elgoibarko (ekainak 3).

Maite Maiora eta Iñigo Lariz igoera bertikalen Espainiako Txapelkun



igoera bertikalen Espainiako txapelketa irabazi zuten Iñigo Larizek eta Maite Maiorak Arredondon (Kantabria, Espainia). 2,7 kilometroko ibilbidean, batez besteko %19ko maldan zuten aldapa igo zuten Mosquiteru (1.213 m.) mendiaren tontorreraino. Larizek 35 minutu eta 14 segundoan osatu zuten igoera. Kataluniako selekzioko ordezkari Pere Rullanek egin zuten bigarren, Larizengandik 58 segundora eta Mikel Beunza nafarra sailkatu zen hirugarren postuan. Emakumezkoetan, iaz Fuente De-n lortutako tituluari eutsi zion Maiorak. 41 minutu eta 18 segundoan igo zen, eta bi minutu eta sei segundoko aldea ateratu zion bigarren egin zuten Maria Zorrozari. Ainhoa Lendinez elgoibartarra sailkatu zen laugarren postuan. Espainiako txapelketa irabazita, igoera bertikalen Europako Txapelketa jokatzeko txartela eskuratu dute Maiorak zein Larizek. Aurtengoa Italian jokatu da urriaren 13an, Greste de la Mughera kilometro bertikala, Limone Sul Garda herrian.

Emaitzak

FUTBOLA

Real Union 1 – Haundi 0 (Oho. erreg.)
Gure Txokoa 2 – Elgoibar 1 (1. erreg.)
Eibar 2 – Elgoibar 3 (Infantil Txiki)
Aretxabaleta A 4 – Elgoibar 4 (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 6 – Sala Quinto 4 (Naz. B)

SASKIBALOIA (LAUKO FINALA)

Viento Sur Elg. 59 – Alde Zaharra B 50
Viento Sur Elg. 83 – Ganbara 76

ESKUBALOIA

Oskarbi Legazpi 16 – Lauko Elg. 41 (Senior emak.)
Aloña Mendi 18 – Alcorta F.G. 28 (Senior giz.)
Tecnifuelle 28 – Bera Bera 28 (Jub nes.)
Karibe Zaharra 29 – Beristai Banaketak 35 (Jub. mt.)
Ereintza Aguaplast 29 – Urkunde 19 (Kad. mut.)
Cometel 23 – Leizaran 20 (Kad. nes.)
Pulpo 27 – Bankoa 17 (Kad. mut.)
Pitch Bidasoa 13 – H. Txarriduna 14 (Inf. mut.)
Elgoibar Sanlo 19 – Eibar Eskubaloia 12 (Aleb. nes.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 27

10:30 Elgoibar – Urki (Oho. kad.)

17:30 Haundi – Anaitasuna (Oho. erreg.)

ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Barixakua, 26

20:15 Lauko – Aiala Zarautz (Senior emak.)

Viento Surrek Lauko Finala irabazi eta mailaz igotzea lortu du

Datorren denboraldian Gipuzkoako Lehen Mailan arituko da Viento Sur saskibaloia taldea. Mailaz igotzeko Lauko Finala jokatu zuten Olaizagan, aurreko asteburuan. Finalerdietan, defentsan oinarritutako garaipena (59-50) lortu zuten Viento Surrek Donostiako Alde Zaharra B taldearen aurka. Domekan jokatu zen finalean, berriz, erasoko jokoa izan zen nagusi. Etxekoek 14 hiruko sartu zituzten Andoaingo Ganbara taldearen aurkako neurketan, eta 83-76 irabazi zuten partida. Atsedendira 17 puntuko aldearekin ailegatu baziren ere, ez zen emoziorik falta izan partidaren amaieran. 2017-2018 denboraldirako jokalarien bila dabil Viento Sur. Taldera batu nahi duten lagunek ekainaren 8an Olaizaga kiroldegira agertu beharko dute, 19:15etik 20:15era egingo duten entrenamendu saiora. Edozein zantza argitzeko honako telefono zenbakia ere badute: 674 313 794.



Elgoibarko Igeriketa Eguna, bihar

Elgoibarko Igeriketa Taldeak antolatuta, Elgoibarko Igeriketa Eguna egingo dute zapatuan (maiatzak 27), Olaizaga kiroldegian. Sei eta hamalau urte bitarteko umeei parte hartuko dute, 10:00etatik aurrera. Iaz, 180 umek parte hartu zuten.

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ 632 882 532

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Jardunaldi osoz edo orduka. ☎ 632 636 069

Adinekoak zaintzeko prest. Interna, orduka eta baita asteburuetan ere. ☎ 632 953 013

Adinekoak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. Interna zein orduka. ☎ 666 197 835 (Rosa Alvarez)

Nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 632 717 557

Nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 632 436 462

Nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta erreferentziak ditut. ☎ 612 266 877

Nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Esperientzia daukat. ☎ 602 490 595

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia eta titulazioa ditut. Garbiketarako edo umeak zaintzeko ere prest nago. ☎ 654 304 337

Haurrak edo adinekoak zaintzen nahiz garbiketa lanak egiten egingo nuke lan. ☎ 664 357 381

Arratsaldean lan egiteko prest nago, 16:00etatik 18:00etara. Edozein lan egingo nuke. ☎ 633 946 701

Neska arduratsua eta esperientziaduna adinekoak zaintzeko prest. Ospitalean ere bai. ☎ 631 343 232

38 urteko emakumea naiz, eta edozein lan egiteko prest nago: adinekoak edo umeak zaindu, garbiketarako... ☎ 649 442 014

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta erreferentzia onak dauzkat. Gidabaimena eta autoa ere bai. ☎ 662 430 854

Haurrak edo adinekoak zaintzen nahiz garbiketa lanak egiten egingo nuke lan. ☎ 631 185 896

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka, interna edo asteburuetan. ☎ 697 754 174

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka, interna edo asteburuetan. ☎ 645 891 307

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka. ☎ 633 401 678

Garbiketa lanak egin eta nagusiak zainduko nituzke. ☎ 631 305 697

Adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 605 196 917

Adinekoak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. Orduka edo interna moduan. ☎ 602 193 095

Eskaerak
Esperientziadun sukaldaria behar dugu. ☎ 943 199 061 (Itziarke hostalari)

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua
Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 627 230 784

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 602 490 595

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 667 397 100

Etxe berria alokatzen dut Altzolan. ☎ 626 282 268

LOKALAK.....
50 metro koadroko lokala salgai edo alokairuan, Basarten. ☎ 669 245 520

KINTOAK.....
1952koen bazkaria ekainaren 17an. 12:30ean harrera, argazkia eta luntxa Txaridun. 14:30ean bazkaria. 50 euro sartu, ekainaren 9rako: ES45 3035 0007 2100 71133665 (Laboral Kutxa).

1949koen bazkaria, ekainaren 3an. Argazkia 12:30ean parrokian. Luntxa Ibai-Ondon, bazkaria Sigman 14:30ean. 50 euro sartu, maiatzaren 31rako: ES0421004168 7821 0032 4544 (Caixa Bank).

BESTELAKOAK.....
Etxeko katu bat jaso du KatuEder elkar-teak eta jabe bila dabil. ☎ 605 772 880

Zubi-Ondo elkarteko bazkide kuota salgai. Merke. ☎ 628 253 046

Txakurkumea aurkitu dut Karakate inguruan. ☎ 699 477 611

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Negocios
Euzko Enpleu Administrazioaren Lanakile Kontsekoa



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Etxejabe baten senide batek eman dezake iritzia komunitateko Obra Batzordearen bileran eta egin dezake adostutako akordioaren kontra, etxejabea bera batzarrean dagoela?

Nire ustez, etxejabea ez den batek ezin du komunitateko organoetan parte hartu. Zentzu horretan, jabeekideen batzarra eta presidentea dira Jabetza Horizontalaren Legearen arabera ezinbestean egon behar diren bi organoak, komunitate bat behar bezala administratzeko eta kudeatzeko. Gainerako karguak -idazkaria, administratzailea, presidenteordea, diruzaina, zuzendaritza-batzordea, Obra Batzordea...-etxe jabeek bete behar dituzte. Administraziozaindaria, hori bai, izan daiteke komunitateko kanpoko profesional bat.

Nolanahi ere, komunitatean legez ezinbestekoak ez diren beste kargu horiek egoteak ez ditu presidentea eta jabeekideen batzarra dituzten ardurez gabetzen. Batzarrerara joan ezin duen etxe jabeak delegatu dezake bere iritzia beste norbaitengan, baina batzarrerara bera doan kasuetan ezin du beste bat eraman; ezin dute biek eman iritzia, alegia.

AHOLKUA: batzarrerara joan ezin duen etxejabeak beste batengana delegatu dezake bere iritzia, baina ardurak eta karguak ezin dira delegatu. Batzorde eta erabaki organoetan etxejabea bakarrik egon ahal da.



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **Lucia**, igandean 6 urte bete beteko dituzulako. Muxu handi bat familiakoan eta, bereziki, lehengusuen partez.



Gure etxeko sorginak 6 urte bete ditu. Zorionak, **Jare**, denon partez.



Zorionak, **arista**, datorren asteartean, maiatzaren 30ean, 6 urte! Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **Ibai**, eta ama Alicia, zuen urtebetetze eguna izan delako. Familiako denon partez.



Zorionak, **Elaia!** 7 urte, neska handi! Patxo handi bat! Ondo pasatu!



Zorionak, **Sare**, neska handi! Hau da hau, konturatu orduko, 11 urte. Patxo handi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Ane eta Elsa!** Agindutakoa bete dut! 18 urte geroago, BARRENe! Muxu asko eta zoriontsu izan.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

**Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**

943 744 112



BARREN

Kalebarren plaza, 2
20870 ELGOIBAR



9998 183112

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

DAILIES® TOTAL 1®

Hain dira erosoak,
ezer ez daramazula
irudiko zaizula.

Probatu itzazu doan!

Alcon Alcon is a leader in eye care
ETENGABEREA. OPIKARIBOZAT



Mª Pilar Alberdi Oruesagasti

2017ko maiatzaren 22an hil zen, 85 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



26 BARIKAKUA

18:00 Gaztelekuko pintxo lehiaketa. Gaztelekuan.

19:00 Elgoibarko Sagardo Eguna. Atabal elkarteak antolatuta, Maalako parkean.

22:30 Jota izarrak. Maria Herrera eta Diego Urmeneta jota kantarien emanaldia. Txarriduna jabetxean.

27 ZAPATUA

10:00 Igeriketa eguna. Olaizaga kiroldegian.

29 ASTELEHENA

19:00 'Epeletan' euskal literatura tailerra. Anjel Lertxundiren Zu liburua landuko dute. Udal Liburutegian.

30 MARTITZENA

11:00 Pleno Txikia, Mendaroko udaletxean.

19:30 'Osasuna eta kirola' hitzaldi zikloaren barruan, *Elgoibar aktiboa: Herria berrinterpretatuz* hitzaldia eskainiko dute, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

31 EGUAZTENA

19:00 Herri Eskolako kurtso amaierako jaialdia. Herri Eskolako patioan.

1 EGUENA

19:00 Herri Eskolako kurtso amaierako jaialdia. Herri Eskolako patioan.

2 BARIKAKUA

19:00 Dantza jaialdia: Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleen jaialdia. Udal Txistulari Taldeak eta Haritz dantzari taldeak ere parte hartuko dute. Kalegoen plazan. Euria bada, Lekuederreko karpan.

23:00 Kontzertua: Hellgoibarko metal gaua, Adrift eta Quaoar taldeekin. Siñosek antolatuta, Maalako parkean.

LUDOTEKAKO ASTE NAGUSIA

26 BARIKAKUA

Kirolari Eguna

16:30 Giza futbolin erraldoia. Ludotekako patioan.

18:00 Futbolin txapelketa, haur eta gurasoek osatutako bikoteentzat. Izenemateak egunean bertan.

'SALATZEN DUT' ASTEBURUA

26 BARIKAKUA

18:30 Pilota partidak. Kalegoen plazan.

20:00 Elkarretaratzea. Kalegoen plazan.

27 ZAPATUA

18:30 Ekitaldiaren aurkezpena, Maalako parkean.

Jarraian, kontzertuak: A2an eta Itziarren Semeak taldeekin.

Ondoren, Karrika antzerki taldearen emanaldia.

AZKEN ZAPATUKO FERIA

27 ZAPATUA

8:00 Baserrietako produktuak salgai, Kalebarren plazan. Basueta Baserria, Mintxeta Baserria, Lizundiatxabola baserria eta Ekoalboraz.

11:00 Txosnaren irekiera. AMPA-Kalamua Guraso taldeek jarriko dute txosna.

12:00 Xaboi tailerra umeentzako. Kalebarren plazan.

12:00 Kale kantariak.

Zinea (Herriko Antzokian)

'Un golpe con estilo'

26 Barixakua, 21:30
27 Zapatua, 19:00/22:15 (VOS)
28 Domeka, 19:00
29 Astelehena, 21:30



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G
U
A
R
D
I
A
K**09:00 - 22:00**

26 Barixakua YUDEGO

27 Zapatua ORUESAGASTI

Goizez: YUDEGO

28 Domeka ORUESAGASTI

29 Astelehena BARRENETXEA

30 Martitzena IBAÑEZ*

31 Eguaztena GARITAONANDIA

1 Eguena ETXEBERRIA

2 Barixakua FERNANDEZ*

20:00 - 22:00

* Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan ezik:

BARRENETXEA (Elgoibar)

Errosario, 26 - Tel.: 943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar)

San Agustin, 3 - Tel.: 943 820 533

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9

(Soraluze) Tel.: 943 751 384

Gomendioa **Euskal Jaia, Eibarren**

Asteburuan zehar Euskal Jaia ospatuko dute Eibarren, euskal kultura eta tradizioarekin lotutako hainbat ekintza antolatatu dituzte eragileek.

26 BARIXAKUA**17:00** Kanean jolasean. Eibarko Bizikleta plazan.**19:00** Burrumba elektrotxaranga, Bizikleta plazatik abiatuta.**27 ZAPATUA****10:00** Artisau eta baserritarren azoka, Toribio Etxeberria kalean.**Goizean zehar**, herri kirolak eta bertsolariak. Talopostua jarriko dute eta trikiti-

lariak ere kalejiran ibiliko dira. Toribio Etxeberria kalean.

19:00 Trikipoteoa, Eibarko trikitalari gazteekin. Guridi tabernatik abiatuta.**21:30** Kantu afaria. Untzagako karpan.**28 DOMEKA****12:00** Euskal Jaiko kalejira, Urkizutik Untzagara.**12:30** Ezpalak dantza tradizionalen jaialdia.**14:30** Herri bazkaria, Untzagako karpan.**17:00** Erromeria, Errebal taldearekin. Untzagako.**19:00** Larrain dantza popularra. Untzaga plazan.**20:00** Larrain dantza popularra. Deportivo parean.

Domekan baserritar jantzita joateko deia egin dute antolatzaileek.

**Fran Salazar Aguado**

"Patxi"

2017ko maiatzaren 23an hil zen, 60 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Fran Salazar Aguado**

"Patxi"

Ez agurrik, ez adiorik, gero arte baizik.


Mintxetako lagunak





Iosu Juaristi

Ainhoa Lendinez



Aizkorri da hori, bere handitasunean. Zegama-Aizkorri mendilas-terketa asteburu honetan izango dela eta, haren inguruan adostu dugu aste honetako Hitz eta klik. Hiru argazki eman dizkit aukeran Fotoiosuk, bat aukeratu eta haren inguruan idazteko. Ez da erraza izan, zein baino zein ederragoak ziren-eta hirurak. Beste bietan Aizkorri eta Zegama, biak ageri ziren, baina nik argazki hau aukeratu dut. Argazki hau aukeratu dut izugarri basatia delako, Aizkorri bera bezain basatia. Gizakiaren arrastorik ez daukan ingurunea dirudi argazki honetan. Eta badakit Zegama-Aizkorri ez dela ezer Zegama gabe, zegamarren maitasunik gabe. Areago, Zegama-Aizkorri ez da ezer maiatzeko asteburu seinalatuan urtero biltzen diren milaka mendizale gabe. Argazki kamerak, oihukak, jendetza, zarata, koloreak, zapatilak, ikurrinak, kronometroak. Festa. Ertz asko ditu Zegama-Aizkorrik. Ertz asko, baina erdigune bakarra nire ustez: mendia bera. Aste-buru honetan zein urteko beste edozein egunetan, Aizkorri beti

dago leku berean, beti handi, eder eta basati. Zegama-Aizkorri emozioa da, malkoak, maitasuna, poza. Horixe sentitu dut nik beti maiatzeko asteburu seinalatuan. Baina horixe sentitu dut Aizkorri izan naizen aldiro ere. Kamerarik gabe, oihurik gabe, ikurrinik gabe. Hango zaldiak, erreastoak, larreak eta loreak, hango kareharrizko ertza, isiltasuna, ikusmira eta lasaitasuna. Aizkorri berez eta beti da liluragarria. Argazki hau aukeratu dut, urteko edozein egunetan ateratakoa izan daitekeelako. Txikitzen, gaztetan nahiz orain, mendi horretan bizitakoak ekaritzen dizkidalako gogora. Orain bi hilabete, larunbat arrats batez igo nintzen Karakatera. Egunaren azken izpien argitan ikusi nuen handik Aizkorri. Negua zen, eta elurtuta zegoen. Edertasun hark liluratuta, han egon nahirik, hurrengo goizean igo nintzen Aizkorriara, Zegamatik bertatik. Ez kamerarik, ez oihurik, ez ikurrinik. Eta orduan ere, hunkitu egin ninduen. Mendia maite dutenek ulertuko dute zer esan nahi dudana. Ez dadila inoiz mendiaren argia itzali. Ni ere Aizkorri izango naiz igande honetan, eta ondo bidean, hurrengo igandean ere bai.

“Aizkorri berez eta beti da liluragarria”



Balbi Vives Zabaleta

2017ko maiatzaren 22an hil zen.

**Oroitzen zaitugunean, Balbi
sukaldean egoten zara
mahaia guztiontzat ipinita,
aulkian eseri eta
leihotik begira,
eta guk - badakigu -
zeure begien hondoan gaudela.**

Familiakook bihotzez eskertzen dizuegu egunotan jaso dugun babes.



Pilar Ariznabarreta Arozena

2017ko maiatzaren 20an hil zen, 92 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Marcelina Goizeru Sorazu

2016ko maiatzaren 24an hil zen, 94 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,
maiatzaren 27an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



Jose Bastida Azpiazu

2017ko apirilaren 20an hil zen, 73 urte zituela.
Haren oroimenez meza izango da, domekan, maiatzaren 28an,
11:30ean Madariagako elizan.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

**Irribarrea ahoan,
dizdira begietan,
oroitzapen hori
betirako gordeko dugu
gure bihotzetan.**

Sendiak





Gernikan lurperatutako gudari gipuzkoarrei omenaldia

AGOTE SANTAMARIA JACINTO
AGUIRREZABALA AZCARATE CASMIRO
ZABALETA GUERRICO FRANCISCO
AROCENA ARRUABARRENA JUSTO
GARATE UNANUE MANUEL
IZAGUIRRE EPELDE JULIAN
LARRAÑAGA ALKORTA JOSE MARIA
ZUAZOLA BASTARRICA IGNACIO
LETAMENDI ELIZBURU NICASIO
AIZPURUA ARRIZABALAGA VICENTE
ANDONEGUI BALZOLA ISIDRO
COBEÑO CORTA JOSE
EZCURRA DIEREZ MIGUEL
GALARRAGA SEGUROLA FRANCISCO
IRURETAGOYENA IRIZAR ANTONIO

ANDOAIN
ANTZUOLA
ARETXABAETA
ASTIGARRAGA
AZKOITIA
AZKOITIA
AZKOITIA
AZKOITIA
BERGARA
DEBA
DONOSTIA
DONOSTIA
DONOSTIA
DONOSTIA (ALTZA)
DONOSTIA

LANZIEGO PEÑA BENEDICTO
SALABERRIA GUARROCHENA PEDRO
ZUBILLAGA AZPIOLEA PEDRO
ECHANIZ ASTIGARRAGA ANGEL
DOMINGO BERIAIN AUGUSTO
LETAMENDI ELIZBURU NICASIO
UGARTE URCELAY ESTEBAN
ALZUA GOICOECHEA JULIO
ELBERDI JOSE
OYARBIDE ELORZA JOSE
PRIETO PUERTAS FRANCISCO
SEGUROLA EGUA PEDRO
GOMEZ ELIZONDO MARIANO
QUIROGA DIEGUEZ JUAN
SAN VICENTE OLALDE FRANCISCO

DONOSTIA
DONOSTIA
DONOSTIA
ELGOIBAR
HERNANI
OÑATI
OÑATI
PASAIA
PASAIA
PASAIA
PASAIA
PASAIA
ERRETERIA
ERRETERIA
ERRETERIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gernikako hilean lurperatuta dauden 71 gudari gipuzkoar omenaldia ditu datarren ekainaren 17an. Ondoren aipatzen diren gudarien familiek kontaktuan jarri nahi du Foru Aldundiak, aipatutako ekitaldira gonbidatzeko.
Informazio gehiago: 943 112 290.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento Foral
de Gipuzkoa



KALEKO VI. MARGO LEHIAKETA ELGOIBARREN

ekainaren 3an

9:00 - 14:00

Elgoibarko erdiguneko kaleetan

AURTEN HERRIKO LAN ONENARI SARI BEREZIA

200 € parte hartu!



OINARRIAK

 EGUR ARTE TAILERRA
ETA KULTUR ETXEAN

LAGUNTZAILEAK



elgoibar
100 años